

## Zuhurtzia

Zuhurtzia arimaren atal arrazionalaren aztura da, zeinak pertsona bat aktibo eta modu fidagarrian paratzen duen ekintzan egia lortzeko asmoz, azken finean, gizakiarentzat onak edo txarrak diren ekintzetan.

Horrez gain, zuhurtzia giza ekintzak ongiak kalkulatzeko (erregulatzeko) balio digun hausnarketa da, hori dela eta ematen dio autoreak garrantzia, ekintzak mailakatzen eta ekintzaren oinarriak jartzen dituelako; gainera, giza ekintzak zuzenduz eta helburu gisa ekintza onenak izanez. Beraz, zuhurtziak funtzio arkitektoniko eta politikoa du. Zuhurtzia deliberazioan datza, eta hausnarketak aldakorrak diren eta gure esku dauden elementuen inguruan burutu behar dira. Zuhurtzia hausnarketak helburu jakin batera bideraturik egokia dena burutzeko zuzentasunari dagokio.

Zuhurrak izateko bertute etikoen beharra daukagu, hala ere bertute etikoak inaktibo egoteko aukera dago. Beraz, hauek praktikara eramateko eta hauen aktibitatea kudeatu ahal izateko, zuhurtziaren araberako deliberazioaz baliatu behar gara.

Hala ere, zuhurtzia ez da bertute nagusia, jakituria baizik, gauzarik bikainenak aztertzen baititu; gainera modu absolutuan da bikaina, zuhurtzia, ordea, espeziaren araberakoa da. Zuhurtzia, jakituria lortzeko bitartekaria edo tresna da, erabat beharrezkoa ordea.